



Benazir Bhuttoekin ez da uste Pakistan jarraz aldatuko denik.

burura zitezen eta atzerriko potentziek ez interbenitzeko konpromezua har zezaten ipini zituzten baldintzat. Nazioarteko negozioan apainki moldatu ziren, baina bertako gerrilaren zazpi talde nagusiek beren ezezkoa adierazi zuten. Ezezkoa ere bai Najiben «berkontziliatze» plan haiei. Zaher Shah erregearen itzultzea proponentzen zen Kabuldik. Mahaz-Milli-Islamiko Gailanik bakarrik onartu zuen hori trabarik gabe. Erregea historiaren elementu bat zela erizten zioten besteei. Hekmatyarek esan zuen «sobietarren horrelako tronpatze maniobretarik bat» onetsiko zuenak ez zuela gehiago islamiar adjetiborik mereziko. Khali ez zen horren erradikala: «herriak ondo ikusiko balu...»

Pakistango pantuxak

Gerrilaren baitan ordea, Kabulgo gobernuarekin ez paktatzeko joera nagusi da. *Shura* edo buruzagien biltzarre bat paratu gura dute, estatuburu bat eta hauteskundeak antolatu bitarteko behin-behineko gobernu bat hautatuko litzukeena. 418 lagunek osatuko lukete biltzarre hori, 10 zazpi alderdietako baikoitzak, beste 268 estatuko distrito baikoitzetik bana eta —gehienak pozik uzteko moduan— pertsonalitate, intelektual eta buruzagi desberdinez itxuraturata gaineratikoak. «Komunista»rik, ezta baño ere, ez sinbolikoki ere. Gobernuarekin kolaboratu duten «musulman on»ekin, zer egin? Eztabadak badituzte horretaz, badirudi halere horietako batzuk onar egin litzaketela. Gobernu behin-behineko hori, erradikalenen ustez, gerrilak kontrolatu eskualdeetan —Jalalabad edo har lezaketen beste hiriren batean— antola daiteke, eta nazioarteko ezagupen diplomatikoa bilatzen aha-legendu.

Sobietarrek nahiko poliki «neutralizatu» dute Iran irudiz. Bi milioi afganiar errefuxiatu bizi dira Iranen, eta afganiar alderdi xiitentzako —eta sunnitentzako ere— laguntza dexenteak bideratu ditu beti Teheranek. Diplomaziaren jokuek (SESBek Nazio Batuen Erakundearen Iranen aurkako kondenak blokeatu izan ditu, esate batera) Iranek laguntza horiek tipi ditzan behartu dute nonbait; behinik behin Mosku saiatu da az-

ken aldi honetan Afganistani buruzko negoziaketetan Teheranek Islamabaden pareko papera jokatu dezan —EEBekiko balantza orekatzearren noski.

Pakistanekin aldiz —Estatu Batuak, bete-betean— ez dago xantzarik. Askok jokatzen ari da Pakistan, bere bizitza bera esan daiteke. Paxtunengana itzultzen gara honela. 1947an, Ingalaterratik independizatu zelarik Pakistan, 10 milioi paxtun gertatu zen bere mugaz



Ehundik gora mila soldadu sobietarrek ospa egin dute Afganistandik hilabete gutxitan.

GERRILA TALDEAK

Fundamentalistak:

Jamiat-Islami (Islamiar Elkartea). Tadjikak. Indartsuena agian. Buruzagia: Burhanuddin Rabbani. Massud komandantea. Mendebaldearen laguntza handia. 30.000 gizon.

Hezb-Islami (Islamiar Alderdia) (1). Paxtunak. Buruzagia: Gulbaddin Hekmatyar. Amerikarren kontrakoa. Laguntza militar handia. 20.000 gizon.

Hezb-Islami (2). («Naziogabeturiko») paxtunak. Aurrekoaren 1979ko eszisiaoa. Buruzagia: Yunnus Khali. Komunistekin, traturik ez. Laguntza militar handia. 20.000 gizon.

Ittihad-Islami (Islamiar Batasuna). Paxtunak. Talde desberdinen bilketa. Buruzagia: Abdul Rasul. Saudi Arabiatik laguntza. 10.000 gizon.

Tradizionalistak:

Harakat-Inkilab-Islami (Islamiar Fronte Iraultzailea). Paxtunak. Bi talde: Mohammed Nabi Mohammed-ena (15.000 gizon) eta Nasrullah Mansur-ena (20.000 gizon).

Majaz-Milli-Islami (Islamiar Nazio Frontea). Paxtunak. Buruzagia: Sayyed Amhad Gailani. Oso kontserbatzailea. Erlijiosoaren laguntza, Saudi Arabiarena. Milaka batzuk.

Jabhat-Nijat-Milli (Nazio Askatasun Frontea). Paxtunak. Buruzagia: Sibghatullah Modjaddidi, irakasle mendebaldekoa. Milaka batzuk.

Beste batzuk:

Harakat-Islami (Islamiar Frontea). Talde desberdinak. Fundamentalistak, xiitak. Irandik laguntza. Buruzagia: Assef Mohseni. Milaka batzuk.

Sazman-Nasr (Garaipenerako Erakundea). Hazara. Jomeiniren aldekoa, pasdaranen alde influentzia galdutakoa. 5etik 15 milara gizon.

Sepah Pasdaran (Iraultzaren zaintzaileak). Hazara. Buruzagia: Saddii Nili. (?)

Shur-Inqilab-Itfaq-Islami (Islamiar Batasunaren Batzorde Iraultzailea). Hazara. Tradizionalista, moderatua. Buruzagia: Sayyed Beheshi. 20.000 gizon.